

## BI AUKERA

Zuzenean parte hartu nahi baduzu, eta guk aholku ematea, zenbait datu eman behar dituzu. Estatistika- eta antolakuntza-xedeetarako bakarrik erabiliko dira datuak, eta haien konfidentzialtasuna erabat bermatuta duzu.

Ezin baduzu zuzenean parte hartu baina kanpainaren emaitzak ikusi nahi badituzu, ematen diguzun helbide elektronikora bidaliko dizkizu lehen ekimen honen ondorioak Sanmarko Mankomunitateak.

## HAUTAKETA

Jasotzen ditugun eskarien artean, hautaketa egingo dugu, irizpide jakin batzuen arabera: zenbat jende bizi den zuen etxean, zer udalerritan bizi zareten... Mankomunitateko ehun etxe hautatuko ditugu laginketa horretan.

## DOS MODALIDADES

Si quieres participar como persona a la que van a asesorar necesitaremos una serie de datos cuya finalidad es únicamente estadística y organizativa, garantizando en todo momento la confidencialidad de los mismos.

Además, si no puedes participar directamente pero tienes interés en conocer los resultados de la campaña nos comprometemos a enviarte a la dirección de correo electrónico que nos proporciones las conclusiones de esta primera experiencia.

## SELECCIÓN

De entre todas las solicitudes que recojamos se realizará una selección en la que se tendrán en cuenta criterios tales como el número de residentes en el hogar, el municipio de procedencia... de manera que obtengamos una muestra de 100 participantes representativa del conjunto de hogares de la Mancomunidad.



*Erosketak egiteko orgatxo tolesgarri bana (ikus irudikoa) emango zaie kanpainan aholku ematen zaien guztiei.*

*A todas las personas que sean asesoradas en la campaña se les hará entrega de un carro plegable para la compra, como el que puedes ver en la imagen.*

 sanmarko

Sanmarko Mankomunitatea - Mancomunidad de San Marcos  
Vitoria-Gasteiz, 10. 20018 Donostia - Tel. 943 214 977 [www.sanmarko.net](http://www.sanmarko.net) [www.merka2sanmarcos.org](http://www.merka2sanmarcos.org)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

  
sanmarko

**Esperientzia berri batean parte hartu nahi al duzu?**

**¿Quieres participar en una experiencia novedosa?**



**EKO SHOPPER**



Erosketak egitera lagunduko dizugu. Kanpaina berri bati ekin dio Sanmarko Mankomunitateak, eta partaide dituen 10 udalerrietan abiaraziko du. Ekimen horri esker, doako aholkularitza-zerbitzua izango duzu, hondakin gutxiago sortzen duten erosketak nola egin jakin dezazun. Berehala jasoko dituzu emaitzak (bikainak), eta, gainera, ingurumenari eta zeure buruari mesede egingo diezu, hondakin gutxiago sortzen lagunduko baituzu.

Te acompañamos a hacer la compra. La Mancomunidad de San Marcos ha dado inicio a nueva campaña destinada a los hogares de los 10 municipios que la integran. En esta iniciativa ponemos a tu disposición un servicio de asesores gratuito con los que podrás contar para realizar una compra en la que generar menos residuos. Dedicándole poco tiempo obtendrás excelentes resultados y, además, contribuirás a la prevención en la generación de residuos en beneficio tuyo y del medio ambiente.



Hona hemen proposatzen dizugun zerbitzuaren urratsak:

1. Izena eman.
2. Kanpainaren antolatzaileak zurekin harremanetan jarriko dira, eta ekimena zertan datzan zehatz azalduko dizute.
3. Erosketak egitera lagunduko dizu pertsona batek, ondo datorkizunean, eta aholku emango dizu.
4. Informazio-buletin batean bidaliko dizkizugu kanpainaren ondorioak.

Pasos del servicio que te proponemos:

1. Inscribirte.
2. Nos ponemos en contacto contigo y te explicamos al detalle toda la experiencia.
3. Te acompañamos a hacer la compra para asesorarte cuando a ti te venga bien.
4. Te enviamos las conclusiones de la campaña en forma de boletín informativo.

## IZENA EMATEKO AUKERAK

2012ko otsailaren 5era arteko epea duzu izena emateko. Hona hemen horretarako dituzun aukerak:

- Deitu **943 670 249** telefono-zenbakira, bulego-ordutegian: goizez (9:00 - 14:00) eta arratsaldez (15:00 - 18:00).
- Bete Sanmarko Mankomunitatearen webguneko formularioa: **www.sanmarko.net**
- Jo leku hauetan aurkituko dituzun **informaziogune**etakoren batera.

## MODOS DE INSCRIBIRTE

Para realizar la inscripción tendrás de plazo **hasta el 5 de febrero de 2012** pudiendo utilizar para ello alguna de estas posibilidades:

- Llamando al teléfono **943 670 249** de 9:00 a 14:00 y de 15:00 a 18:00.
- Rellenando el formulario que consta en la página web de la Mancomunidad de San Marcos: **www.sanmarko.net**
- Acudiendo a alguno de los **puntos informativos** que se encontrarán en los siguientes puntos.



INFORMAZIOGUNEA PUNTO INFORMATIVO	LEKUA LUGAR	DATA FECHA	ORDUTEGIA HORARIO
Urbil merkataritza-gunea / Centro Comercial Urbil	Usurbil	urtarrilak 27 / 27 de enero	16:00 - 22:00
Bulebarra / Boulevard Musika-kioskoaren ondoan / Junto al quiosco de la música	Donostia-San Sebastián	urtarrilak 28 / 28 de enero	11:00 - 14:00 16:00 - 20:00
Merkatu txikia (Gamón Zumardia) / Mercadillo (Alameda Gamón)	Errenteria	urtarrilak 30 / 30 de enero	10:00 - 14:00
Garbera merkataritza-gunea / Centro Comercial Garbera	Donostia-San Sebastián	otsailak 4 / 4 de febrero	16:00 - 22:00

